



**LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL FEDERAZIOAREN ETA EUSKO JAURLARITZAKO  
JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZAREN ARTEKOA**

DONOSTIA 2022KO APILIRAREN 1

**BILDUTA**

**ORIO RUIZ CABESTANY JAUNA/ANDREA, EUSKAL BELA FEDERAZIOAREN** izenean eta hura ordezkatzu, aurrerantzean: Euskal Federazioa, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatuta dagoen erakundea, egoitza Donostia, Anoeta Pasealekua 7 duena eta G20139903 zenbakiko IFK duena. Entitatearen lehendakari gisa hartu du parte, eta bere egin ditu entitatearen estatutuek eta Euskadiko kirol federazioei buruzko 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 100. artikulua ematen dizkioten ordezkari-tza-ahalmenak.

**JON REDONDO LERTXUNDI JAUNA, EUSKO JAURLARITZAKO JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZAREN** izenean eta hura ordezkatzu, aurrerantzean: Kirol Zuzendaritza; egoitza: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Guztiek ere agiri hau sinatzeko beharrezkoa eta nahikoa den gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta hau

**AZALDU DUTE**

- I. Egiaztatu da kirol-jardueraren ingurumarian sexu-jazarpena eta -abusua eta sexuan oinarritutako jazarpena sor daitezkeela.
- II. Kirol-jardueraren esparruko sexu-jazarpen eta -abusuen eta sexuan oinarritutako ekintzen egileak edo biktimak federatuak izan daitezke, eta ekintza horiek federazio-jardueretan gerta daitezke.
- III. Aurreko ataletan adierazitakoa oinarri hartuta, bai Euskal Federazioak bai Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak egokitzen jo dute jarduera-esparru bat ezartzea, kirol-jarduera federatuaren eremuan sexu-jazarpena eta -abusua eta sexuan oinarritutako jazarpena eragiten duten portaerak prebenitzeko, ikertzeko eta, hala badagokio, zehatzeko.
- IV. Euskal Federazioak betetzen dituen administrazio-egiteko publiko eskuordetuen artean dago federazioen araudiak onartzea eta diziplina-ahala erabiltzea, 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 25. artikulua dioenez.
- V. Euskadiko kirol-federazioak arautzen dituen 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 16.1 artikulua honela dio: «Lurraldeko federazioek eta Euskadiko federazioek euren funtzioak, hurrenez hurren, lurralde historikoetako foru organoekiko eta Eusko Jaurlaritzako organoekiko lankidetzan beteko dituzte Horretarako, elkarrekin



lankidetzan hitzarmenak egin ahal izango dituzte, helburuak, kirol-programak, aurrekontuak eta eskuordeturiko funtzio publikoei zuzenean loturiko gainerako alderdiak zehazteko. Hitzarmen horien izaera juridiko-administratiboa izango da.»

- VI. Aurreko ataletan adierazitakoaren argitan, dokumentu hau sinatzen duten alderdiek erabaki dute lankidetzan hitzarmen hau formalizatzea klausula hauen arabera:

## **KLAUSULAK**

### **LEHENENGOA.- Helburua.**

Dokumentu honen xedea da Euskal Federazioaren eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren arteko lankidetzan-esparrua ezartzea, kirol federatuaren jardueraren esparruan sexu-jazarpena eta -abusua eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko, ikertzeko eta, hala badagokio, zehatzeko.

### **BIGARRENA.- Euskal Federazioaren betebeharrak.**

Euskal Federazioak betebeharrak hauek izango ditu, bere organo sozialen nahitaezko erabakien bidez:

- a) Sexu-jazarpen eta -abusuei eta sexuan oinarritutako jazarpenei aurre egiteko prebentzio- eta zehapen-erregelamendu bat onartzea, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak horretarako ezarritako ereduari jarraituz.
- b) Beharrezkotzat jotzen denean, sexu-jazarpen eta -abusuei eta sexuan oinarritutako jazarpenei aurre egiteko prebentzio- eta zehapen-erregelamendua aldatzea.
- c) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea hark, Euskal Kirol Federazioen Batasunarekin elkarlanean, kirol federatuaren eremuko sexu-jazarpena eta -abusua eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko egiten dituen jarduketetan.
- d) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea, sexu-jazarpen eta -abusuen arloan eta sexuan oinarritutako jazarpenen arloan indarrean dagoen erregelamenduan aurreikusitakoa betetzeko beharrezkoak diren ekintza eta jarduketetan.
- e) Bere organo eta langileen bidez, elkarlanean aritzea sexu-jazarpenarekin eta -abusuarekin eta sexuan oinarritutako jazarpenarekin lotutako arau-hausteei buruzko diziplinazko zehapen-espedienteak abiarazi, izapidetu eta ebatzi ahal izateko.
- f) Diziplina-organoari eta gainerako agintari eskudunei jakinaraztea kirolaren eremuan gerta daitezkeen sexu-jazarpen eta -abusuei eta sexuan oinarritutako jazarpenei



buruzko informazio edo datu ezagun guztiak, eta, bereziki, legez kontrako ekintzak edo arauetan aurreikusitako arau-hausteak izan daitezkeenak.

- g) Kiroleko sexu-jazarpen eta -abusuei eta sexuan oinarritutako jazarpenei buruz Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak argitaratzen duen informazio eta dokumentazio guztia zabaltzea.
- h) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak Euskal Kirol Federazioen Batasunaren bitartez antolatutako dibulgazio-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-kanpaina eta -jardunaldietan parte hartzea.
- i) Kirolean gertatzen diren sexu-jazarpen eta -abusuei eta sexuan oinarritutako jazarpenei aurre egiteko konfiantzazko pertsona bat izatea. Pertsona hori Euskal Federazioaren solaskidea eta arduraduna izango da Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren eta gainerako agintarien aurrean, arlo horrekin zerikusia duen edozein gairi dagokionez. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskal Kirol Federazioen Batasunaren bitartez, antolatzen dituen informazio-, prestakuntza- edo birziklatze-jardunaldi guztietan parte hartu beharko du kirol arloko sexu-jazarpen eta -abusuei eta sexuan oinarritutako jazarpenei aurre egiteko federazioko arduradun horrek.
- j) Eta, oro har, arlo horretan indarrean dauden arau-xedapenetan ezarritako betebeharrak guztiak konplitzea.

#### **HIRUGARRENA.- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren betebeharrak.**

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak betebeharrak hauek izango ditu:

- a) Sexu-jazarpen eta -abusuei eta sexuan oinarritutako jazarpenei aurre egiteko prebentzio- eta zehapen-erregelamendu estandar bat egitea, Euskal Federazioak onar dezan.
- b) Proposamenak egitea Euskal Federazioari, sexu-jazarpen eta -abusuei eta sexuan oinarritutako jazarpenei aurre egiteko prebentzio- eta zehapen-erregelamendua aldatzeko, federazioak, hala badagokio, erregelamendua egokitu dezan.
- c) Euskal Kirol Federazioen Batasunarekin lankidetzan, programa bat egitea, kirol federatuaren eremuko sexu-jazarpenera eta -abusua eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko.
- d) Euskal Federazioarekin lankidetzan aritzea, sexu-jazarpen eta -abusuen arloan eta sexuan oinarritutako jazarpenen arloan indarrean dauden araudietan eta erregelamenduetan aurreikusitakoa betetzeko beharrezkoak diren ekintza eta jarduketetan.



- e) Euskal Kirol Federazioen Batasuneko dagokion zerbitzu espezializatuaren bitartez, profesional-talde bat jartzea Euskadiko Federazioaren esku, arlo horretako prestakuntza-lanez gain sexu-jazarpen eta -abusuen eta sexuan oinarritutako erasoengatik inguruko zehapen-espeditentak ikertu, izapidetu eta ebazteko, betiere auziak federazioaren arlo subjektibo, material eta objektiboaren esparrukoak badira.
- f) Kiroleko sexu-jazarpen eta -abusuei eta sexuan oinarritutako jazarpenei buruzko informazio eta dokumentazio beharrezko guztia zabaltea.
- g) Kiroleko sexu-jazarpen eta -abusuei eta sexuan oinarritutako jazarpenei buruzko dibulgazio-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-kanpainak eta jardunaldiak antolatzea.
- h) Euskal Federazioari jakinaraztea kiroleko sexu-jazarpen eta -abusuei eta sexuan oinarritutako jazarpenei buruzko informazio edo datu ezagun guztiak.
- i) Eta, oro har, arlo horretan indarrean dauden arau-xedapenetan ezarritako betebeharrak guztiak konplitzea.

**LAUGARRENA.- Diziplinazko zehapen-espeditentak, kiroleko sexu-jazarpen eta -abusuak eta sexuan oinarritutako jazarpenak gertatuz gero.**

1.- Alderdiak adosten dute federazioaren eremuko sexu-jazarpenarekin eta -abusuarekin eta sexuan oinarritutako jazarpenarekin lotutako arau-hausteengatik espeditenteen diziplina-ahalaren auzi guztiak klausula honetan aurreikusitakoaren arabera bideratuko direla; klausula Euskadiko Kirol Federazioak arautzen dituen 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 16.1 artikulua babesean idatzi da. Horiek horrela, protokolo hau izaera juridiko-administratiboa duen hitzarmentzat hartuko da aipatutako arau-aginduan aurreikusitakoaren ondorioetarako.

2.- Alderdiak adosten dute federazioaren eremuko sexu-jazarpenarekin eta -abusuarekin eta sexuan oinarritutako jazarpenarekin lotutako auziak ikertzeari eta diziplina-arloan epaitzeari dagozkion lan guztiak Kirol Federazioaren Jazarpen eta Abusuari buruzko Diziplina Batzordeak (JADB) egingo dituela. Batzorde hori Euskal Kirol Federazioen Batasunak bere erakunde elkartuen esku jartzen du, betiere auziak federazioaren arlo subjektibo, material eta objektiboaren esparrukoak badira.

3.- Klausula honetan aurreikusitakoaren arabera, arlo honetako arau-hausteengatik Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Federazioko Jazarpen eta Abusuko Diziplina Batzordeak (JADB) balia dezakeen diziplina-ahala egikaritzean, bere giza baliabideak eta baliabide materialak erabiliko ditu entitate horrek.

4.- Kirol Federazioaren Jazarpen eta Abusuko Diziplina Batzordea (JADB) jakitun denean kiroleko sexu-jazarpen eta -abusuei eta sexuan oinarritutako jazarpeneko arau-hauste diren edo izan daitezkeen egitateak edo inguruabarrak daudela, kasuan kasuko diziplina-espeditentak hasiko du, eta hasteko erabakiaren berri emango die federazioari eta interesdun izan



daitezkeen gainerako pertsona edo entitateei. Federazioa jakitun bada kiroleko sexu-jazarpen eta -abusuei eta sexuan oinarritutako jazarpeneko arau-hauste diren edo izan daitezkeen egitateak edo inguruabarrak daudela, horren berri emango dio Kirol Federazioaren Jazarpen eta Abusuko Diziiplina Batzordeari (JADB), eta eskura dituen dokumentuak edo informazioak emango dizkio.

5.- Klausula honetan aurreikusitakoaren arabera, kiroleko sexu-jazarpen eta -abusuei eta sexuan oinarritutako jazarpeneko arau-hausteengatik Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Federazioko Jazarpen eta Abusuko Diziiplina Batzordeak (JADB) bideratutako diziiplina-espeditenteei amaiera ematen dioten ebazpenak Euskal Federazioari eta interesdun diren gainerako pertsona edo entitateei jakinaraziko zaizkie.

6.- Klausula honetan aurreikusitakoaren arabera, kiroleko sexu-jazarpen eta -abusuei eta sexuan oinarritutako jazarpeneko arau-hausteengatik Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Kirol Federazioko Jazarpen eta Abusuko Diziiplina Batzordeak (JADB) bideratutako diziiplina-espeditenteei amaiera ematen dioten ebazpenen aurka, kasuan kasuko erregelamenduan aurreikusitako errekurtsioak aurkeztu ahal izango dituzte interesdunek.

7.- Klausula honetan aurreikusitakoaren babesean baliaturiko diziiplina-ahala erabiltzeak ez ditu galaraziko agintari eskudunek beste jurisdikzio edo esparru batzuetan gara ditzaketen gainerako jarduketak.

**BOSGARRENA.- Datu pertsonalen babesaren arloko erantzukizun eta betebeharren araubidea.**

1.- Lankidetzeta-protokolo hau sinatzen duten alderdietako bakoitzak nahitaez bete beharko ditu datu pertsonalak babesteko arloan aplikatzekoak diren arau-xedapenak; alegia, garatzen dituen jarduketan ondorioz edo baliatzen duen diziiplina-ahalaren ondorioz irispidean dituen datuei edo informazioei dagokienez.

2.- Alderdietako bakoitza izango da kirolean gertatzen diren sexu-jazarpen eta -abusuen eta sexuan oinarritutako jazarpenen aurka diharduenean irispidean dituen fitxategien eta datu pertsonalen tratamenduaren erantzule.

3.- Alderdi bakoitzak kontrako alderdia salbuesten du datu pertsonalen tratamenduan edozein eratako erantzukizuna sorraz dezakeen zeinahi urraketa edo ez-betetzerean aurrean.

4.- Alderdiek konpromisoa hartzen dute beharrezkoa denean datu pertsonalak tratatzeko baimena —lagatzekoa barne— lortzeko, dela titularraren beraren baimenaren bidez — federazio-prozeduretako inprimakietan edo aktetan izenpetuta—, dela tratamendu eta datu-lagapen horiek baimentzen dituzten aurreikuspenak dagozkion arau-xedapenetan txertatuz.

### **SEIGARRENA.- Iraupena.**

- 1.- Lankidetzta-protokolo honek sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak alderdien artean.
- 2.- Lankidetzta-protokolo honen hasierako iraupena lau urtekoa da, sinatzen den egunetik aurrera. Hala ere, alderdietako batek ere ez badu salutzen, lankidetzta-protokoloa automatikoki luzatuko da urtez urte.

### **ZAZPIGARRENA.- Suntsiarazpena.**

- 1.- Lankidetzta-protokoloa indarrean dagoen bitartean, alderdietako edozeinek eskatu ahal izango du askatasun osoz hitzarmena suntsiarazteko.
- 2.- Lankidetzta-protokoloa suntsiarazteko eskatu ahal izango du alderdietako edozeinek, baldin eta uste badu beste aldeak hartutako betebeharrak edo konpromisoak nabarmen urratu direla.
- 3.- Alderdietako batek jakinarazitako lankidetzta-protokoloaren suntsiarazpenak berehala izango ditu ondorioak, eta une horretatik bertatik amaituko da lotura.
- 4.- Lankidetzta-protokoloa suntsiarazteak ez ditu alderdiak salbuetsiko indarrean dagoen legediaren arabera kirol-arloko sexu-jazarpen eta -abusuen eta sexuan oinarritutako jazarpenaren alorrean dituzten obligazioak betetzetik.
- 5.- Lankidetzta-hitzarmen hau suntsiarazteak ez du ekarriko inolako konpentsazio edo kalte-ordainik pagatzeko edo eskatzeko betebeharririk edo eskubiderik.

Eta arestian adierazitako guztiarekin bat datozela frogatzeko, aldeek agiri hau sinatzen dute, bi aletan eta orri guztietan, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

EUSKAL FEDERAZIOA

JARDUERA FISIKOAREN ETA  
KIROLAREN ZUZENDARITZA